

BIDELAGUNA

Eskola laguntza programa ezartzeko proiektua

Zumaiako Herri Eskola, herrian dagoen eskola publiko bakarra da

Gure ikastetxean ikasketetan zailtasunak dituzten ikasleei betidanik laguntza eman zaie ordu lektiboetan, eta behar gehiago duena eskolaz kanpoko laguntzetara bideratu izan da (partikularrak). Beti ere partikularreko irakasleekin koordinatuz.

Bestalde, Udaletxeko Gizarte zerbitzukoekin biltzen gara zenbait ikasleen jarraipena egiteko eta eskolaz kanpoko laguntzak bideratzeko.

BIDELAGUNA programak aukera emango digu; eskolaz kanpo laguntza jaso ezin dutenei eskaini ahal izateko eta jasotzen dutenei laguntza ikastetxean bertan emateko, eta laguntza hori ikastetxeko tutoreek, koordinatzailearekin batera, diseinatzeko, ebaluatzeko eta birmoldaketak egiteko.

Gure ikastetxeko 3. zikloko ikasle multzo bat aukeratu dugu arazo-egoera ezberdinengatik. Programa honek ikasketetan eta auto-estimuan aurrera egiteko aukera emango diela uste dugu, honela, ikasle hauek euren hezkuntza-prozesuan aurrera hobeto egiteko eta bizitzan arrakasta izateko egokiago hornituko ditugula deritzogu.

JUSTIFIKAZIOA

D ereduko ikastetxea izanik, ikasketetan aurrera egiteko zailtasunak ditu aipatutako multzoko gehiengo batek, izan ere, kanpotik etorritako ikasleak dira edota oso giro erdaldunean bizi direnak eta oraindik ez direnak erabat euskaldundu. Egoera honek ikasle hauek euren hezkuntza prozesuari aurre egiteko D ereduan, agian, zenbait zailtasuna ekar diezaike. Bestalde, PROA bezalako programa baten bidez, urtean zehar, sistematikoki, gai instrumentalak eta irakurketa, idazketa eta ulermena bezalako eremu garrantzitsuak lantzeak mesede baino ez diete egingo aukeratu ditugun ikasleei.

Ikasle multzoko gehienak maila sozio-ekonomiko eta kultural baxukoak direla aipatu behar da.

Ikasle hauengan aipagarrienak diren ezaugarriak honako hauek dira:

- Familia arazoengatik ikasketarekiko jarrera desegokia,
- arazo psiko-afektiboak eta jarrerazkoak,
- ikasteko zailtasunak eta
- lan-ohitura falta

IKASTETXEAREN ABIAPUNTU EGOERA

Ikastetxea kokatuta dagoen eremuaren sozio-ekonomiko mailak, azkenaldi honetan, beheraka nabarmen egin du. Langabeziak gogor jo ditu bertako gizartea eta familiak. Hau guztia nabari da ikastetxean.

Azken urteetako matrikulazio-kopuruak aztertuta (eta datuak publikoak dira) Zumaiaiko herriak bertan duen ikastetxe publikoarengan konfidantza handia du. Konfidantza horrek, herriarengandik jasotzen duen aniztasunari behar hainako kalitatezko hezkuntza-erantzunak ematera behartzen gaitu. Aniztasun horretan behar ezberdin asko somatzen ditugu, eta ikasleen onerako eta euren bizitza-

arrakastarako, erantzun beharrean gara. Erantzun horretan saiatzen gara ahalik eta hobekien egiten indartze neurrien eta bestelako ekintzen bidez, baina PROA bezalako programak erantzuna kalitate hobegokoa izaten lagunduko luke.

Datorren ikasturterako izango dugun Lanpostu Zerrendan murrizketak nabariak dira. Ikasturte honetarako indizeekin aldentuz, galtzen ateratzen gara. Galtze horrek eskaintzen ditugun indartze eta laguntza-zerbitzuetan eragina zuzena izango du. Eta laguntza zerbitzuetako galtzeak, berriz, gehien behar duten ikasleen kalterako izango da. Beraz, hainbeste behar duten gure ikasleen hezkuntza eskubidea bermatu nahian, PROA programa honek gabeziak betetzen lagunduko liguke.

Proiektuarekiko zenbait datu:

- 3. zikloko ikasleen familiek Gizarte zerbitzuetatik 6ek diru-laguntza jasotzen dute eta esku-hartze familiarra programan sartuta daude.
- Eskola porrota izateko arriskuan dauden ikasle kopurua % 18a da.
- Oinarrizko gaitasunak hobeto garatzeko beharra duten ikasleak % 18 dira.

PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA

3.1.- PROPOSATUTAKO HELBURUAK:

- Ikasle horien arrakasta indizea handitzea.
- Euskera maila hobetzea
- Lanaren aurrean antolatzeko ohiturak eta konstantzia bultzatzea
(Agendaren erabilpena, etxeko lanak egiteko ohitura)
- Arlo instrumentalen ezagupen eta trebetasunak finkatzea.
- Ikasteko ohiturak garatzea.
- Arrakastaren bidez auto-estimua igotzea.
- Ikastetxean eta taldean bere integrazioa hobetzea.
- Familiekin harremana areagotzea beraien partaidetza bultzatuz.
- I.K.T. ak, Eskola 2.0 ren ildotik, gai instrumentaletan aurrera egiteko erabiltzea.

ESKOLA-LAGUNTZA PROGRAMA EZARTZEKO PROIEKTUA

3.2. - JARDUERAK:

Jarduerak norekin	JARDUERA	ARDURADUNA	JARDUERA NOIZ BURUTU	EBALUAZIOA	LORPEN ADIERAZLEAK
Ikasleekin	Ikasleen agendaren jarraipena egin.	Begiraleak	Laguntza orduetan	Hiruhileko bakoitzean bitan	Laguntza saio gehienetan, % 80an, ikasle guztien agenda begiratuta izatea.
	Etxeko lanen bidez zailtasunak detektatu.				Ikasle bakoitzaren hutsune zerrenda egin.
	Oinarrizko konpetentzietan dituzten hutsuneak betetzen lagundu.				Hutsuneak gainditu ahala zerrendan adierazi, ikurra baten bidez.
	Ikasteko estrategiak garatu.				Ikasturte hasieran programatutako estrategiak jarritako epean landu direla ziurtatu
	Mailari dagozkion ezagupenak lortzen saiatu				Ebaluazioetako notak igotzen badira
	Auto-estimua garatu eta lan saio hauen onuraz jabetu.			Hiruhilean behin	Galdeketa baten erantzunak aztertu. Asetze maila % 70a
	Ekintzen jarraipena			Hiruhilean behin	Hiruhilean behin

ESKOLA-LAGUNTZA PROGRAMA EZARTZEKO PROIEKTUA

Familiekin	Familiekin bildu eta konpromisoa sinatu	Tutorea	Kurtso hasieran	Urrian.	Ikasle guztien konpromiso-orria sinatuta izatea
	Ikasleen jarraipena egin.	Tutorea eta begiralea	Hiruhilekoen behin	Ikasturtearen amaieran	Hiru bilera egin direla ziurtatzea
	Asistentzia bermatu.	Familia	Saio bakoitzean	Hiruhilekoan behin	% 90 asistentzia.
	Familiaren asetze mailaren azterketa	Aholkularia	Hiruhilekoan behin	Hiruhilekoan behin	GALDEKETA BATEN BIDEZ, %70 BA DA

ESKOLA-LAGUNTZA PROGRAMA EZARTZEKO PROIEKTUA

Monitoreekin	Plangintza orokorra aurrakusi: -programaren helburuak -ardurak, -denboralizazioa, -bilera motak (koordinazioa)	Zuzendaria Aholkularia eta LH3.zikloko tutoreak	Kurtso hasieran		
	Plangintza orokorraren ebaluazioa			Ikasturtearen amaieran	
	Hileko programa zehaztu: -helburuak -jarduerak Aurreko hileko programaren ebaluazioa	Aholkularia eta tutoreak	Hilean behin Bileraren 1.zatian	Hilean behin Bileraren 2.zatian	IKASLEEN GELAKO-MARTXA Ikasleen jarrera Programaziaren helburuen lorpena Programazioko jarduerak egitea
	Hileko programazioaren jarraipena	Aholkularia	Hilean behin	Hilean behin	
	Programazioaren zehaztapena	Aholkularia	Hamabostean behin	Hamabostean behin	

ESKOLA-LAGUNTZA PROGRAMA EZARTZEKO PROIEKTUA


Zuzendariarekin	Programaren martxaren berri eman eta ebaluazioa	Aholkularia	Hiruhilean behin	Hiruhilean behin	<ul style="list-style-type: none"> -PROGRAMAREN HELBURUEN BETETZEA, -Ardurak betetzea, -Denboralizazioa betetzea -Bilerak egin izana -Ikasleen martxa -Partaideen asetze maila
-----------------	---	-------------	------------------	------------------	--

OOG Klaustroa	Plangintza orokorra aurkeztu	Zuzendariak	Ikasturtearen hasieran		
	Plangintza orokorraren ebaluazioaren berri eman	Zuzendariak	Ikasturtearen amaieran		

3.2.- DENBORALIZAZIOA

LAN SAIOAK	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
5. MAILA	Maila bakoitzerako, asteko 4 egun hauetan, MATEMATIKA ETA HIZKUNTZAK lantzea aurrikusten dugu. Ordutegi finkoa, arduradunen iritziei jarraiki, programaren onarpenarekin batera zehaztuko genuke.			
6. MAILA				

3.3.- AURREIKUSTEN DIREN PARTAIDEAK: (Zuzendaria, OOG, eta familiak falta dira)



KOORDINAZIOA/JARRAIPENA/BALORAZIOA

- Aholkularia izango da proiektu honen koordinatzailea eta proiektuari loturiko ekintzen arduraduna. Beraz,
 - bera arduratuko da begiraleen eta tutoreen arteko harremanetaz.
 - Zuzendariari programaren berri emateaz,
 - Familiekiko koordinazioa eta inplikazioa bermatzeaz,
 - Programa koordinatzea eta
 - Programa ikastetxeko ICParekiko koordinazioa bermatzeaz.

Horretarako astean zenbait ordu izango ditu.

- Tutoreek landu beharrekoa programazioetan zehaztuko dituzte. Era berean, begiraleei eskuratuko dizkiete behar duten material curricular guztia : fitxa, liburuak, ariketak, ordenagailu-programak...

Aholkulariak bere aldetik, beharrezkoak dituzten bestelako materiala.

- Proiektu honetan sartutako 3. zikloko tutoreek, monitoreek eta aholkulariak astean ordubete izango dute koordinazio-lanak bideratzeko, **ASTELEHENAK**, hain zuzen.
- Aldian, koordinaketako bileraz gain, hiruhilean behin, balorazio bilera orokor bat egingo dugu.
- Ikasturte bukaeran proiektuaren ebaluazioa egingo da: funtzionamendu eta antolamenduaz gain, tutoreek, ikasleen aurrerapenak baloratuko dituzte (auto-estimua, ikasketetan aurrerapenak, etxeko lanak...)
- Begiraleek baloratuko dute ikasleen asebetetze maila, konfidantza, auto-estimua, tutoreekin izandako harremana.

Familiek baloratuko dute programa